

Galdera

ISEC (Índice Socio-Económico y Cultural) honela idatzi izan dugu ebaluazio diagnostikoetan euskaraz: ISEK. Zuzena al da? Beste proposamenik? Inoiz, ingelesezko baliokidea den ESCS aukeratu izan dute itzultzaileek.

Erantzuna

ISEK (indize sozioekonomiko eta kulturala), gure iritzian, egokiak dira siglak eta terminoa.

1/ Indize sozioekonomiko eta kulturala terminoa hedatua eta normalizatua da, gure ustez. Hainbat hedabide eta erakundetan erabili ohi da. Hona adibide batzuk:

- [Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan TXOSTEN OROKORRA](#), 2007ko otsaila.
- [Euskadiko Eskola-Hezkuntza 2015-2017](#), Euskadiko Eskola Kontseilua. EIMA Katalogoan jasota.
- [BESTE GAKO BATZUK](#), BERRIA, 2018ko ekainaren 28.
- [Gasteizko ikastetxe publikoen ia erdia "ghetto zentroak" dira](#), ARGIA, 2019ko ekainaren 11.
- [Idem](#), Halabedi.
- [Desabantaila egoeran dauden gazteentzako baliabide-gida](#), Gasteizko Udala.
- [STEILAS prentsa-oharra](#), 2021eko maiatzaren 21.

Beraz, ondo deritzogu ildo horretatik jarraitzeari.

2/ Ikus dezagun nola jokutzen duten gure inguruko hizkuntzetan.

Batzuetan ez dira itzultzen nazioartean erabiltzen diren zenbait sigla:

NASA (National Aeronautics and Space Administration), PISA (Programme for International Student Assessment)

Baina gehienetan bai, adibidez:

UFO (unidentified flying object), OHE (objektu hegalaria ezezaguna), OVNI (objeto volador no identificado), OVNI (objet volant non identifié) ...

3/ 'ESCS (Economic, social and cultural status)' terminoa itzultzen da beste hizkuntza batzuetara, frantsesera, kasu ([OCDE PISA à la loupe 25](#)): 'statut économique, social et culturel', 'indice PISA de statut économique, social et culturel'.

Izen luzeari dagokion sigla ere frantsesez ematen da: 'SESC'

4/ Euskaraz, gure inguruko hizkuntzek urratutako bide beretik jo dugu; zuzen jo ere, gure irudiko. Beraz, ingelesezko siglak erabiltzea (ESCS) ez litzateke gomendagarria kasu honetan. Bestalde, hitzez hitz itzulirik, honela litzateke:

'estatus ekonomiko, sozial eta kulturala (EESK)' edo 'egoera ekonomiko, sozial eta kulturala (EESK)'

5/ Azkenik, esan bezala, **ISEK** sigla eta **indize sozioekonomiko eta kulturala** terminoa egokiak dira gure iritzian.

6/ Hona hemen gai honekin lotutako beste kontsulta batzuk:

<https://irale.hezkuntza.net/eu/590>

<https://irale.hezkuntza.net/eu/989>